

## **2023KO EKINTZEN MEMORIA**

### **URTARRILA**

- 10ean, gure sare sozialen estrategia indartuko duen Irukom enpresarekin bildu gara eta urte guztirako plangintza diseinatu dugu.
- 12an Goierriko sagardotegien denboraldi berria aurkezteko prentsurrekoa ospatu da Ataunen: ekitaldiaren buru eta gonbidatu gisa, Joseba Beloki txirrindulari lazkaotarra izan da gure artean.
- 16an Foru Aldundiko Turismo Sailarekin bildu gara, Foru Aldundia eta Goitur-en arteko aurtengo hitzarmena adostu dugularik, Kataluniako azoka turistikoei dagokion hitzarmena.
- 27. urtez, Eusko Jaurlaritzako standaren barruan joan gara Madrilgo FITUR azokara 18tik 22ra. Azokak iraun duen bost egun hauetan guregana heldu direnak Goierriko mapa eta gida desberdinekin topatu dira; era berean, egun hauetan zehar, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiko agintari desberdinekin elkartzeko aukera ere izan dugu, eta Turismo Ministerioko ordezkari eta arduradun desberdinekin bildu gara Goierriko lehiakortasuna eta promozioa aztertzeke asmoz.
- 18an Helmuga Turistiko Adimenduna sareko partaide bezela eta HTA programa honetan lanean hasi garela aitortzen duen ziurtagiria jaso dugu Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo Sailburua eta Enrique Martinez, SEGITTUR-eko Presidentearen eskutik FITUR-en egin den prentsurreko batean.
- 18an ere Perico Delgado txirrindulari eta kazetariarekin bildu gara Madrilan, udaberrian Goierriara egingo duen bisita prestatzeko helburuarekin.
- 23an, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Euskadi Gastronomika egitasmoko bileran parte hartu dugu: bertan, aurtengorako ekintza plana aurkeztu zaigu.
- 23an baita ere, Ataungo Udala eta GOT taldearekin bildu gara Lizarrustin egingo dugun orientazioko ibilbide iraunkorra eta aurrez antolatuko den lasterketa aurkezteko helburuarekin.

- 24ean Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko Presidentearekin bildu gara aurten Gipuzkoan ospatuko den UCI mailako junior txapelketa dela eta; apirilean ospatuko da proba hau Goierriin, Ormaiztegitik abiatuta, eta streaming emanaldia babesteko konpromezua hartu dugu.
- 26an, Gasteizen ospatu den Euskadiko Ekoturismoko Foroan parte hartu dugu, eta bertan, Eusko Jaurlaritzako agintari politiko eta tekniko desberdinekin biltzeko aukera izan dugu.
- 26an ere Basque Luxury aurtengo aldizkariaren aurkezpenean izan gara: Goierriko udalerrri guztiei buruzko erreportai bat argitaratu da bertan; online formatoan ere badagoen aldizkari hau Euskal Herria, Kantabria, Errioxa eta Frantziako hotel eta zerbitzu turistikorik garrantzitsuenetan egongo da eskuragai (jatetxe, denda, museo, etb.) eta 901.000 irakurle ditu denera. Aldizkaria munduko 120 herrialdetako 5700 hotel garrantzitsu baino gehiagotan dago kontsultarako (The Ritz, Carlton, Park Hyatt, Marriott, Four Seasons, Mandarin, Intercontinental, Relais&Chateaux, Bulgari Hotels, Hilton eta Le Meridien), Europako hainbat aireportuetan eta hegazkin konpainietan (Iberia, British Airways, Air Canada, Air Astana, Jet Blue, Austrian Airlines, Eurowings, Israel Airlines, Quantas, Lufthansa, Swiss, Alitalia,...), Eurostar trenan eta kruzeroetan ere (Silverseas, MSC Cruises, Carnival, Viking,...)
- 27an Donostiako Foru Aldundiko HUB-ean izan gara alojamentuen trantsizio energetikoari buruzko dirulaguntzen bilera batean; aldi berean, alojamentuekin jasagarritasunaren inguruko praktika onak aztertzekeo proiektu bati buruz hitz egin dugu.
- 31an Foru Aldundiko HUB-ak eskainitako formakuntza bat antolatu dugu eskualdeko enpresentzat, Google my business plataformari buruzkoa.
- Hilabete hasieran zehar komunikabide desberdinekin harremanetan jarri gara eta Goitur-eko aurtengo egitasmoaren berri eman diegu.
- Urtarrilean hasi eta urte bukaerara arte, Nekatur, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen webgunean, promoziorako Goierriko banner bat txertatu dugu.
- Urtarrilean senderismo.net webgunearekin banner bat adostu dugu urte guztirako GR 283 ibilbidea promozionatzeko helburuarekin.
- Urte hasiera honetan ere Irukom enpresarekin adosturiko ekintza plana martxan jarri dugu: Goitur-eko sare sozialak dinamizatuko dira urte guztirako egin den egutegiaren bitartez.

## OTSAILA

- 2an Goierriko Turismo Mahai teknikoa bildu da martxan dugun egitasmo estrategikoari buruzko gogoeta egin eta AMIA dokumentua begiratzeko helburuarekin.
- 7an Paco Nadal kazetari ezagunarekin bildu gara ekaineko bisita prestatzeko helburuarekin: maiatzean Goierriko erreportai bat egitera etorriko da eta bisita honen inguruan jardun dugu.
- 8an Euskadiko Bide Berdeen Jardunaldian parte hartu dugu hizlari bezala: Goierriko Meatze Guneko azken ekintzak aurkeztu ditugu.
- 13an Goierriko turismoaren egitasmoa lantzen ari den Gura enpresarekin elkartu gara eskualdeko AMIA zehaztu asmoz eta egitasmoaren bigarren faseari hasiera emateko helburuarekin; hilabete zehar ere, Gura eta Laia enprekin bilera desberdinak izan ditugu eskualdeko egitasmo turistikoko berriaren inguruan.
- 14ean eta 28an bizikletak egiten dituen Axalko enpresarekin bildu gara diseinatu behar dituzten ibilbide zikloturista desberdinak aztertu asmoz eta nitxo konkretu hau lantzeko asmoa duten sektoreko eragile desberdinak elkartzeko helburuarekin.
- 16an Ordiziako turismorako Next laguntzak martxan jartzeko bileran parte hartu dugu Gestores Europeos enpresarekin batera.
- 20ean Eusko Jaurlaritzak Euskadi Cycling egitasmoa aurkeztu du Joseba Belokirekin batera; Goierri eskualdea ere egitasmo honetan sartu da eta ondoren etorriko diren ekintza desberdinetan ere parte hartuko du eskualdeko enpresa desberdinekin elkarlanean.
- 23an Foru Aldundiko HUB-ak eskainitako formakuntza bat antolatu dugu eskualdeko enpresentzat, Mailchimp plataformari buruzkoa.
- Hilabete zehar herri desberdinetako komisiotan parte hartu dugu beraien eskaerari erantzunez.
- Otsailean zehar ere, eskualdeko ekipamendu turistikoekin elkarlanean, taldeentzako pakete eta ibilbide turistikoko berriak diseinatu ditugu; era berean, Goierriko meatze guneko mapa eta Tour-aren irudia daramaten mapa turistikoko berriak argitaratu ditugu.

## **MARTXOA**

- 2an Euskadi Gastronomika egitasmoko lantaldeko arduradunekin bildu gara aurtengo lan ildo desberdinak aztertu asmoz.
- 3an, apirilean ospatuko den UCI mailako txirrindularitzako Gipuzkoa Klasika probako antolatzaileekin elkartu gara, antolakuntzak argitaratuko dituen eusgarri promozional desberdinetan gure publizitatea nola sartu aztertzeko.
- 5etik 7ra, Turismo Ministeriokin lantzen ari garen "Turismoa eta lehen sektorea" ekimenaren barruan, kontraste taldea bildu da hirugarren aldiz eta egitasmoan parte hartzen duten enpresak bisitatu dira berriz ere.
- 6an Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da MICE eta berrikuntza programetako hainbat ekintza aztertu eta enpresentzako aterako dituzten dirulaguntzen berri eduki ahal izateko.
- 7an Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko arduradun teknikoekin bildu gara aurtengo dirulaguntzen dekretuak aztertu eta Goierriko osagarriak izango diren ekintza promozionalak ezagutzeko asmoarekin.
- 7an baita ere Euskadi Gastronomika Mahaia bildu da berehala martxan jarriko diren ekimen berriak aztertu eta eskualde guztien arteko eztabaida zabaltzeko helburuarekin ekimen berri hauen inguruan.
- 7tik 9ra Berlin-go ITB azokan parte hartu dugu gure errezeptiboen bitartez, eta hauen bidez aurkeztu ditugu eskualdeko pakete turistiko desberdinak.
- 9an eta 31n Euskal Herriko Trail Estazioekin bildu gara elkarrekin lantzen ari garen proiektu berriari buruz hizketan jarraitzeko.
- 11an Eusko Travel Bloggers Elkarteko 9 kide etorri dira Goierri ezagutzera eta bertako produktu turistiko desberdinen berri ematera erreportaien bidez: beste batzuen artean, Pasaporte a Wonderland, Dreaming Holidays, Furgo Bidaiak, Yendo por la Vida, Recorriendo el planeta, etab. etorri dira.
- 14ean Basquetour-ek, zikloturismoko egitasmo berriaren barruan antolaturiko formazio batean parte hartu dugu, eskualdean garatu nahi dugun produktu nitxo hau garatzeko helburuarekin.
- 20ean eskualdeko erreportai bat argitaratu dugu Kataluniako Vertex aldizkarian: Kataluniako Mendi Federazioko aldizkari honetan, Katalunia guztiko 250 mendi klubetako bazkideetara iristen dena, Goierriko naturari buruzko erreportai zabala argitaratu dugu (azaleko irudia barne).

- 21ean eta prentsurreko baten bidez, eskualdeko ekipamendu turistikoek elkarlanean diseinaturiko taldeentzako ibilbide berriak aurkeztu ditugu.
- 21ean baita ere Idiazabalgo Gazta azokako komisioan parte hartu dugu maiatzean ospatuko den azoka antolatzeko helburuarekin.
- 22an, Foru Aldundiko Turismo Zuzendariarekin batera, Goitur-en aurtengo kanpaina promozionala aurkeztu dugu prentsurreko baten bidez eta Foru Aldundiarekin sinaturiko hitzarmen turistikoa balioan jarri dugu.
- 22an baita ere, SEGITTUR-ek sorturiko Estatuko Kirol Turismoa lantalde berriko lehen bileran parte hartu dugu.
- 23an eskualdeko Turismo Mahaia elkartu da, Aste Santua baino lehen izango ditugun promozio ekintzak partekatzeke asmoz eta Aste Santua eta udarari begira landuko ditugun estrategia desberdinak zehaztearren.
- 27an Basquetour-ek antolaturiko familia turismoa lantaldeko bileran parte hartu dugu: bilera honetan, aurtengorako dagoen ekintza plana aztertu da partaide guztien artean.
- 28an prentsurreko bat antolatu dugu, Zerain, Estatuko Landa Turismoko Hiribururako izendatua izan delako: Escapada Rural taldeak antolaturiko lehiaketan, Zerain herria, 10 finalisten artean sartu da eta hemendik aurrerako prozesua azaldu da prentsurreko horretan. Oihartzun haundia izan du albiste honek Euskal Herriko komunikabide desberdinetan egun horietan zehar.
- 28an ere, Ordizian antolaturiko prentsurreko batean parte hartu dugu: GR 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbidea, 2023ko Estatuko Ibilbide Gastronomikorik hoberena izendatu dute Viajes National Geographic-eko irakurleek; Goitur-ek ibilbide honen inguruan egin duen promozioa balioan jarri dugu.
- 29an Basque Culinary Center-ek aurrera daraman turismo gastronomikoko masterrean ikastaro bat eman dugu Goierriko produktu gastronomikoak aurkeztuz eta hauen kudeaketa turistikoa azalduz; bide batez, eskualdeko hainbat errekurtsu gastronomiko ere bisitatu ditugu.
- 30ean Basquetour-ek antolaturiko bileran parte hartu dugu: eskualde guztiok parte hartu dugun bilera honetan, turismoko marketing egitasmo berria aurkeztu digute.

- 31tik apirilaren 2ra emakumeentzako lehenengo Training Camp-a antolatu dugu Zegaman Salomon taldearekin batera bigarren aldiz: 28 korrikalari etorri dira guztira Salomon-eko komunikazio arduradunekin batera eta, Aizkorri-Aratz Parke Naturala ezagutzeaz gain, gure produktu turistikoen berri eman zaie.
- Martxoan, Aste Santuari begira, Goierriko erreportai desberdinak argitaratu dira Noticias taldeko ON aldizkarian, La Vanguardia egunkarian eta Sud Ouest egunkarian (Bordel eta Toulouse-n banatzen den gehigarrian); Iparraldeko eta Landetako TVPI telebistan ere Goierriko spot-a emititu da.
- Martxoa bukaeran, Foru Aldundiaren laguntzarekin, Madrileko 50 komunikabide desberdinetara Goierriko informazioa helarazi dugu: bakoitzari gazta erdi bat eta Goierriko gastronomiari buruzko informazioa jasotzen duen prentsa ohar bat bidali diegu; tartean, honako komunikabide hauek daude: El País, El Confidencial, ABC, RNE, Cadena Ser, Guía Repsol, El Economista, Voz Pópuli, El País, Vogue, Hola, Elle, Expansión, Tapas, Ronda Iberia, Telva, Woman, Renfe, El Mundo, La Razón, Semana, Forbes, Efe, Europa Press, Traveler, etab.
- Azkenik, martxoa amaieran eta Aste Santua aurretik, promozio turistikoa berezia egin da Bizkaian: egun osoko planak eta Goierriko informazio orokorraren berri eman da ondorengo komunikabide hauetan: TeleBilbao, Radio Nervión, Radio Popular, Very Bilbao eta La Ría del Ocio.
- Hilabete zehar SEGITTUR-ek antolaturiko bilera desberdinetan parte hartu dugu Estatuko landa turismoko sareko eta lantaldeko partaide bezala, sektorearekin erlazionaturiko hainbat gai aztertu ditugularik.

## **APIRILA**

- Aste Santu atarian, hainbat komunikabideekin elkarrizketak egin ditugu Aste Santu aurreko balorazioa eginez eta Goierriin antolatu diren ekintza eta agenda berezien berri emanez.
- 1etik 2ra "Imanes de Viaje"ko bi blogger etorri dira Zerain eta inguruak ezagutzera Zeraingo izendapena dela eta (Zerain, Estatuko Landa Turismoko Hiribururako finalista).

- 4ean Goierriko egitasmo turistikoa eta jasangarritasun turistikoaren egitasmoa garatzen ari diren Gura eta Laia enprekin bildu gara ekintza planari azken ukituak eman asmoz.
- 6tik 9ra Bilboko BasqueFEST azokan parte hartu dugu zazpigarren aldiz: lau egunetan zehar Goierriko informazio turistikoa banatu dugu Areatzako karpan eta gure produktu gastronomikoen dastaketak ere egin ditugu (gazta eta sagardoa). Beste behin ere erabat arrakastatsua izan da aurtengo edizio hau.
- 10ean Erresuma Batuko Cycling UK touroperatzailearen bisita jaso dugu: zikloturismoko nitxoan oinarrituriko agentzia bat da eta, eskualdeko produktu turistikoak ezagutzeaz gain, Tour-eko etapa egitera etorri dira Goierriara.
- 12an, Ordiziako Artzai eguna dala eta, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoaren bilakaeraren inguruan hitz egiteko; agintarien artean, Jesus Garcia de Cos, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordearekin bildu gara eta Ordizia bisitatu dugu.
- 17tik eta maiatza amaitu arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Valentziar Erkidegoa, Madril, Lleida, Girona eta Bartzelona lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- 17an baita ere, Habla Radio irratiak Zeraindik egin du emisioa zuzenean goiz eta arratsalde; Goierri eskualdea aurkezteko aukera izan dugu bertan.
- 22an, Goitur-ek babestutako UCI mailako junior txirrindulari klasika ospatu da Goierriin; Estatu Batuak eta Europako 18 talde desberdin etorri dira Estatukoez aparte, eta streaming bidez ikusi ahal izan da zuzenean. Aurretik, proba hau aurkezteko Ormaiztegin egin den prentsaurrekoan parte hartu dugu 19 asteazkenean.
- 24tik eta ekaineko Sanjuanak bitartean Goierriko bideoa emitituko da Diario Vasco egunkariko webgunean eta 400.000 inpresio sartuko dira guztira denbora epe horretan.
- 25ean Euskal Herriko Trail Estazioekin bildu gara elkarrekin lantzen ari garen proiektu berriari buruz hizketan jarraitzeko.

- 26an Iparraldeko eta Landetako TVPI telebista etorri da Goierrira; produktu eta errekurtsio turistiko nagusienak grabatu dituzte eta eskualdeko erreportai bat emitituko dute maiatzean.
- 28tik 30era bigarren Training Camp bat antolatu dugu Zegaman Salomon taldearekin batera bigarren aldiz: 35 korrikalari etorri dira guztira Salomon-eko komunikazio arduradunekin batera eta, Aizkorri-Aratz Parke Naturala ezagutzeaz gain, gure produktu turistikoaren berri eman zaie.
- Apirila bukaeran, Arabako San Prudentzio eta maiatzak lehenengoko zubia baino lehen, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportaiak sartu ditugu eta maiatzeko Idiazabalgo Gazten Azoka eta beste hainbat ekintzen berri eman dugu apirilaren bukaeratik maiatzaren hasierara arte.

## **MAIATZA**

- 2tik 4era Pedro Delgado txirrindularia eta kirol kazetaria etorri da Goierrira; eskualdeko hainbat produktu turistiko ezagutu ditu, uztailak 2ko Tour-aren etapako Goierriko 30km-ak grabatu ditugu berarekin ondoren promozionatzeko, eta bisitan zehar prentsarekin topaketa bat antolatu dugu bere bisitaren berri emateko.
- 4ean, Gasteizen ospatu den Euskadiko zikloturismoko foroan parte hartu dugu.
- 5etik 7ra BEC-eko Expovacaciones turismoko azokan parte hartu dugu; 24. aldiz aurkezten ziren gure produktuak Bizkaian eta harrera ezin hobea eduki dugu. Stand-ean bertan, ETB1eko Egun on Euskadi programan promozionatu gara zuzeneko saioan.
- 7an, Idiazabalgo Gazta Azoka dela eta, Eusko Jaurlaritzako agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoaren bilakaeraren inguruan hitz egiteko; agintarien artean, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordearekin bildu gara.
- 9tik 11ra Xixon-en izan gara SEGITTUR-ek antolaturiko HTA (Helmuga Turistiko Adimenduna) proiektuaren barruan, Estatu guztitik etorri diren helmuguen topaketa batean.



- 12tik 14era Zegama-Aizkorri maratoia eta kilometro bertikala ospatu dira eta maratoiaz baliatu gara Basque Highlands marka turistikoa promozionatzeko garaian, Estatuko kate desberdinetako hainbat informatiboetan azaltzeaz gain. Aurten, Goitur-en aportazioa tarteko eta bigarren aldiz, zuzenean bota da proba TVE-ko Teledeporte kanalean, Katalunia-ko TV3 telebistan, ETB1-en, Golden Trail World Series-eko Youtube kanalean, Salomon-eko telebistan eta sare sozialen bidez: tartean, Goierriko bideoa eta publizitatea emititu da eta hemen ere elkarrizketa bat egin digute Estatu osoko telebistentzat.
- 20ean Europako Bide Berdeen eguna ospatu dugu Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdean zehar: ekintza honen antolakuntzan parte hartu dugu eta Bide Berdeen Fundazioarekin ere harremanetan egon gara, beraien prentsa oharrean Goierriko ekimen hau ere sartu delarik.
- 28tik 31ra Paco Nadal, "El País" egunkariko kazetari ezaguna etorri da Goierri: Gr 283 Gaztaren Ibilbidea eta eskualdeko produktu turistiko desberdinak ezagutu ditu eta eskualdea promozionatuko du bere bitarteko promozional desberdinen bidez.
- European Best Destinations Erakundeak, Europear Komisioko Turismoko webgune ofizialean, Goierri promozionatzen du aurten Europako lehen 10 destino turistikoen artean senderismoko atalean: Goierriekin batera Finlandia, Kroazia, Belgika, Eslovenia, Errumania, Portugal eta Italiako beste destino batzuk daude; Estatuan, Goierri dago bakarrik. Webgune bereko "Digital Detox" atalean ere, Goierri azaltzen da lasaitasun bila etorri nahi duenaren Europako lehen 20 helmuga turistikoen artean, eta turismo jasangarriaren atalean ere 2016. urtetik aurrera azaltzen gara 2015. urtean lortutako EDEN sariari esker; sekulako promozioa da honako hau, batez ere Europako bidai agentzia eta errezeptiboen aurrean.
- Maiatzean, National Geographic aldizkarian Goierriko naturari buruzko erreportai bat argitaratu dugu hilabete honetako zenbakian, eta bi asteko kanpaina berezi bat egin da baita ere beraien webgune eta sare sozialetan.
- Hilabete honetan zehar Udalerrri desberdinetako turismoko komisio eta bileretan parte hartu dugu.

## EKAINA

- 1ean Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritzako Zuzendari berria den Aroa Jilete-rekin bildu gara esku artean ditugun egitasmoak azaltzeko helburuarekin.
- 5ean Donostiako SER katean antolatu duten turismoari buruzko mahai inguru batean parte hartu dugu; bertan, Goierriko eskualdea aurkezteko aukeraz baliatu gara.
- 8an Irlandako Irish Mail on Sunday egunkariko kazetariak etorri dira Goierriira turismo familiarraren inguruan erreportaje bat egiteko asmoarekin.
- 9an RNE irratian Idiazabal gaztari eta artzantzari buruzko elkarrizketa bat egin digute eta Goierri eskualdea promozionatzeko baliatu dugu bide batez.
- 12an Hola Viajes aldizkarian Goierriko erreportaje zabala argitaratu da eskualdeko informazioarekin.
- 14ean Belgikako Flandriako VAB Magazine aldizkariko kazetariak etorri dira Goierriira, bertako errekurtsio eta produktu turistiko nagusienak ezagutzera, Euskadiri buruz egingo duten erreportaje baterako.
- 15ean Basquetour-ekin bildu gara Goierriko Helmuga Turistiko Adimendunaren plan pilotua nola doan aztertzeko helburuarekin.
- 15ean baita ere eskualdeko turismo bulegoen mahaia bildu da uda turistikoaz hitz egiteko asmoz: museoen ordutegiak, gaztandegietara bisitak, datuen bilketa eta beste hainbat gai aztertu dira.
- 16an, Goierri Valley-ko urteko Batzar Orokorrean parte hartu dugu, elkarte honetako bazkide garen heinean.
- 17tik 18ra Anaya Touring editorialeko kazetari bat etorri da Goierriira, Euskadiko 101 leku ikusgarrienak jasoko dituen bidaiatzeko gida berri bat kaleratu behar dutelako, "Los 101 lugares más sorprendentes del País Vasco" izenekoak.
- 21ean Gipuzkoako HUB-a, Gipuzkoako eskualdeak eta Deustoko unibertsitatearekin elkarlanean egin dugun "Alojamenduak eta aldaketa klimatikoa" proiekturen aurkezpenean izan gara.

- 22an Aroa Jilete, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritzako Zuzendaria eta Daniel Solana, Basquetour-eko Zuzendariarekin bildu gara Eusko Jaurlaritza eta Goitur-en artean elkarlanean lantzen ari garen proiektu desberdinen garapena aztertzeke asmoz.
- 28an, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuaren presentziarekin eta Gasteizen ospatu den ekitaldi baten bidez, aurreko bi urteetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren programan parte hartu duten Goierriko 17 enpresen ziurtagiriak banatu dira.
- 29an, Iker Goiria, Foru Aldundiko Turismo Zuzendariarekin bildu gara Ehunmilak-eko prentsaurrekoa baliatuz.
- Tour Magazine editorialak argitaratzen dituen Tour Magazine Gipuzkoa, Tour Magazine Bizkaia, Tour Magazine Araba, Tour Magazine Navarra eta Tour Magazine Rioja-ko udako aldizkari guztietan Goierriko promozioa egin dugu.
- Hilabete honetan amaitu ditugu Goierriko industria turistikoaren plan estrategikoa, industria turistikoaren jasangarritasun egitasmoa eta industria turistikoaren marketing egitasmoen erredakzioak, 2030. urtera arte iraungo dutenak.
- Hilabete honetan zehar, negozio berriak sortu edo martxan dituztenak eta dibertsifikatu nahi duten hiru enpresekin bildu gara.

## **UZTAILA**

- 1ean Campermendia ekimenarekin dugun hitzarmenaren barruan, Goierriko hainbat produktu turistikoaren grabaketak egin ditugu, ondoren ekoiztuko diren bideo promozional bezala erabili ditzagun eta beraien sare sozialen bidez zabaldu daitezzen.
- 2an, TVE-ko Tour-eko emanaldian, Perico Delgadok Goierriko produktu eta errekurtsu turistikoaren promozioa egin du Tourra Goierritik pasa denean.
- 4ean Donostiako turismo bulegoetan, udaran egongo diren informatzaile guztiekin bilera bat antolatu dugu: bertan, Goierriko produktu turistiko guztiak aurkeztu dizkiegu gure eskualdeko informazio hobea eskaini dezaten.

- 4ean ere, eskualdeko produktu turistikoak promozionatzeko garatu dugun ekimen bat aurkeztu dugu Segura Irratiaren eskutik.
- 5ean, Goierriko Hitzan, Ehunmilak-i buruz atera duen gehigarrian, eskualdeari buruzko publizitatea sartu dugu bertan.
- 7tik 9ra Ehunmilak proba ospatu da eta Suediako "Spring Kommunikation" aldizkariko kazetariekin eskualdeko promozioa landu dugu; lasterketak iraun duen egunetan, Goierriko mapa turistiko guztiak mahaian egon dira.
- 10ean legealdi berriko lehen bilera egin dugu Udaletxeekin: Goitur aurkezteaz gain, aurtengo egitasmoa azaldu dugu eta Goierriko Industria Turistikoaren Egitasmo Turistikoa eta Marketin Plana 2023-2030 banatu diegu; bileran, Eusko Jaurlaritzako agintariak ere parte hartu dute.
- 11an Goierriko turismo familiarrari buruzko informazio guztia pasa diogu Italiako Feltrinelli editorialari, Euskadiri buruz idazten ari diren liburu baterako.
- 12an eta 20ean Sakana, Tolosaldea eta Baigorriko ordezkariekin bildu gara amankomunean sortu nahi dugun Euskal Herriko Trail Estazioa garatzen jarraitzeko.
- 14ean, Turismoko Ministerioko SEGITTUR-ek antolaturiko kirol turismoari buruzko bileran parte hartu dugu.
- 20ean, Turismoko Ministerioko SEGITTUR-ek antolaturiko landa turismoari buruzko bileran parte hartu dugu.
- 21ean Laia enpresarekin elkartu gara Goierriko industria turistikoaren jasangarritasun planak biltzen dituen ekintza batzuk martxan jartzeko helburuarekin.
- Hilabete zehar, Eusko Jaurlaritza, Basquetour eta Foru Aldundiarekin bildu gara datorren urteko diru laguntzen berri izan eta gure egitasmoa beraien plan estrategiko berriekin nola lerrokatu aztertzeko.

## **ABUZTUA**

- Hilabetean zehar erakunde desberdinekin elkartu gara udazkeneko eta datorren urteko promozio turistikorako ekintzak adosteko: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Hub, Basquetour eta Donostia-San Sebastián Turismo.
- 9an Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburua eta Iñigo Garcia, Foru Aldundiko Turismo Zuzendari berria etorri dira Goierri hainbat produktu turistikoen ezagutzera; bisitan zehar beraiekin egon gara eta Goitur-eko eta Gipuzkoako eta Euskadiko sektore turistikoen hainbat gai aztertu ditugu, bisitaren ondoren antolatu dugun bazkarian.
- 20ean berriro ere, Javier Hurtado, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburuarekin egoteko aukera izan dugu Goierri egin duen geldialdi bat dela eta.
- 23an, Basquetour-ek aurrera daraman Euskadi Confidential programa kudeatzen duen Hagoos enpresarekin bildu gara Goierriko esperientzia turistikoen berriak programa honetan txertatzeko helburuarekin.
- 29an, irailean Lizarrustin ospatuko den orientazio proba prestatzeko bileran parte hartu dugu Ataungo Udala eta GOT taldearekin batera.
- Abuztuan zehar elkarrizketa ugari egin ditugu irrati eta telebista desberdinekin Goierri eskualdea aurkeztuz, eta egunkari askotan atera da Goierriko informazioa.
- Era berean, abuztuan ere, bazkideen kezka eta arazoak konpondu ditugu (alojamendu eta zerbitzu turistikoenak batez ere), material turistikoa eskatutako leku guztietara bidali dugu eta egunero egunero informazio turistikoa eskaini dugu telefonoaren bidez.

## **IRAILA**

- 5ean Ataunen irailean jokatu diren orientazio probak aurkeztu ditugu prentsaurreko baten bidez; era berean, Lizarrustin kokatua egongo den orientazioko zirkuito iraunkorra ere azaleratu dugu prentsaurrekoan.
- 6an, Ordiziako Euskal Jaiak direla eta, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiko Turismo Saileko agintariekin egoteko eta biltzeko aukera baliatu dugu.

- 7an Gura Marketing enpresako arduradunekin bildu gara, Goierriko industria turistikoaren egitasmo estrategiko berrian azaltzen diren ekintza batzuk abian jartzeko helburuarekin.
- 7an baita ere Murtziako Integral erakundeko 27 eragile politiko eta teknikoen bisita jaso dugu Goierri; Integral, landa garapenerako elkartea da eta Murtziako 4 eskualdek osatzen dute (Noroeste de Murcia, Río Mula, Sierra Espuña eta Tierras Altas de Lorca), Murtzia guztiko azaleraren ia erdia. Goitur-ek aurrera eramaten dituen ekintzak eta produktu turistiko desberdinak ezagutzeko helburuarekin etorri dira, gobernantzaren eredu bezala.
- 16tik 17ra orientazioko probak ospatu dira Ataunen 335 partaidekin; proba hauen ondoren aurkeztuko den ibilbide iraunkorrean ospatu da ekimen hau.
- 18tik eta urriak 31 arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Araba eta Bizkaia lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- 20ean Foru Aldundiko HUB-ak eskainitako formakuntza bat antolatu dugu eskualdeko enpresentzat, Instagram plataformari buruzkoa.
- 25ean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin bildu gara Euskadiko Baliabide Turistikoen Lurralde Plana Sektoriala idazten ari direlako; Sailak berak Goitur-i eskatutako bileran, gai honi buruzko gure ikuspuntua aurkeztu diegu.
- 25ean baita ere Gipuzkoako Turismo Mahaia bildu da eta bertan izan gara: legealdi honetako lehen bilera izan da, eta bertan, Azahara Dominguez, Turismoko Diputatua eta Iñigo Garcia, Turismoko Zuzendari berriek parte hartu dute.
- 26an Goierri Barnetik deituriko eskualdeko egitasmoko bileran parte hartu dugu eta etorkizuneko erronkak jorratu ditugu.
- 26tik 27ra, Euskadiko esperientzia turistikoari buruzko liburua idazten ari den kazetari eta idazle alemaniar bat egon da gure artean eta eskualdeko hainbat errekurtsu bisitatu ditu; Andreas Drouve idazleak "111 Orte, die man im Baskenland gesehen haben muss" liburua idatziko du.

- 27an Nekatur-ekin bildu gara etorkizuneko erronkak aztertu eta landa inguruneko erabilera turistikorako etxebizitzaren gaia jorratzeko helburuarekin.
- 28an, Goierri Valley-ko enpresa guztiri eskualdeko turismoari buruzko informazio guztia bidali zaie newsletter baten bitartez, elkarte honetako bazkide garen heinean.
- Iraila bukaeran, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportajeak sartu ditugu urriko zubia eta aste bukaeratako bisitarien mugimenduak kontutan izanda.
- Irailean zehar, Kode Etikoaren barruan ditugun 17 enpresekin lanean izan gara programa honetako partehartzeak eskatzen dituen atalak lantzen.

## URRIA

- 2an Euskal Herriko Trail Estazioa osatzen dugun 4 kideekin bildu gara elkarrekin lantzen ari garen proiektu berriari buruz hizketan jarraitzeko.
- 4ean eskualdeko Turismo Mahaia bildu da udako balorazioa egin, udazkeneko promozio turistikoen berri eman eta datorren urteko egitasmoa aurkezteko helburuarekin beste gai batzuen artean.
- 4ean baita ere, Basquetour-ek antolaturiko Meet Basque Country ekimenaren barruan, Europako bazter desberdinetatik etorritako eta natura turismoa saltzen duten bidai agentziez osaturiko talde bat etorri da Goierriera (Suedia, Finlandia, Alemania, Erresuma Batua eta Belgika); beraientzat prestatutako fam-trip honen bidez, merkatu nitxo honetara zuzendutako eskualdeko produktu turistikoen nagusienak aurkeztu dizkiegu.
- 6an, Goiberriko kontrazalean, eskualdeko turismoari buruzko informazioa sartu dugu.
- 9an Italiako Feltrinelli editorialak, Italian Euskal Herriari buruz dagoen gida liburu turistikoa bakarrik ateratzeaz dagoen honetan, bertako idazlea den Davide Moroni Goierriera egin zuen bisita baliatuz, eduki berriak pasa dizkiogu argitaratu behar den gida berriari Goierriko informazio gehiago sartu ahal izateko.

- 13tik 15era Seu d'Urgell-eko (Lleida) azokan egon gara: Kataluniatik kanpoko stand bakarra izan gara eta sekulako arrakasta izan dugu beste behin ere, bai jende kopuruaren aldetik, baita prentsaren aldetik ere.
- 23tik 24era Turesspaña-k Donostian antolatu duen kongresuan parte hartu dugu eta Turesspaña-k nazioartean dituen OET desberdinetako arduradunak ezagutu ditugu, Turismoko Estatu Idazkaritzako agintariekin egoteaz gain.
- 25ean Foru Aldundiko HUB-ak eskainitako formakuntza bat antolatu dugu eskualdeko enpresentzat, Instagrameko Reels tresnaren inguruan.
- 26an Basquetour-eko natura arloko arduradunekin bildu gara udaberriari Goierri antolatuko den Euskadiko Senderismoko Lehen Foroa prestatzen hasteko.
- 31an Gura Marketing enpresarekin bildu gara datorren urtean jorratuko ditugun gobernantza eta promozio alorreko hainbat ekintzen egutegia zehazteko helburuarekin.
- Urria hasieran eta zubiari begira, promozio turistikoa berezia egin da Bizkaian aste bukaerako bisitariei zuzenduta; aste bukaerako planak, Goierriko informazio orokorra eta azoka gastronomikoen berri eman da ondorengo komunikabide hauetan: TeleBilbao, Very Bilbao, El Correo eta ETB2.

## **AZAROA**

- 2an Azahara Dominguez, Foru Aldundiko Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketako Diputatua eta Iñigo Garcia, Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria etorri dira Goierri hainbat produktu turistikoa ezagutzera; bisitan zehar beraiekin egon gara eta Goitur-eko eta Gipuzkoako sektore turistikoa hainbat gai aztertu ditugu, bisita aurretik antolatu dugun bileran eta bisita ondorengo bazkarian.
- 3an eta 24ean Biziola eta Laia enpresekin elkartu gara datorren urtean egin nahi dugun lehen sektoreko ekoizle eta produktu gastronomikoen gida berria lantzeko helburuarekin.
- 6tik 8ra Goierriko informazio turistikoa Londres-eko WTM azoka turistikoa egon da, bai Euskadiko stand-eant, baita bertan presentzia izan duten bidai agentzien bidez ere.



- 8an Lazkaoko Udalarekin bildu gara turismoaren inguruan dituzten ekintza desberdinak aztertzeko helburuarekin.
- 10tik 12ra Vic-eko Fira de la Muntanya azokan parte hartu dugu hirugarren aldiz eta sekulako arrakasta izan dugu jendearen interesa aldetik.
- 16an Basquetour-eko produktu turistiko eta promozio alorretako arduraduna etorri da Goierriara, bi erakundeen artean eta datorren urtean jorratuko ditugun ekintzak desberdinak aztertu ditugarik.
- 17tik 19ra Valladolid-en ospatu den INTUR azokan egon gara Gipuzkoako stand-aren barruan; gerturatutako jende kopurua eta jendearen interesa oso handia izan da beste behin ere.
- 21ean Gipuzkoako Hub-arekin batera Goierri ezagutarazteko fam-trip bat antolatu dugu Gipuzkoako eragile turistikoek zuzendurikoa; 28 pertsonako talde bat etorri da Gipuzkoako Turismo Zuzendariarekin batera: gida turistikoak, zerbitzu turistikoak, alojamendu mota desberdinak, komunikabideak, errezeptiboak, etab.
- 21ean baita ere Eusko Jaurlaritzako boletinean argitaratu da aurtengo turismoko sarien irabazleen zerrenda: Goitur-ek irabazi du sarietako bat; helburu arduratsu eta jasangarriaren Euskadi Saria jaso dugu gizarte, ingurumen eta ekonomia arloko jardueren bidez ekimen arduratsu eta jasangarriak gauzatu dituen eskualdeko turismo erakunde bezala.
- 22an Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Turismoko Galan parte hartu dugu Donostiako San Telmo museoan eta Euskadi saria jaso dugu Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuaren eskutik.
- 28tik 30era arte Goierriko informazio turistikoa Bartzelonako IBTM azoka turistikoan egon da MICE merkatuari zuzenduta.
- 29an, Debarrenako Debegesa eskualdeko garapen agentziak eskatuta, Goierriko HTA egitasmoa aurkeztu dugu eskualdeko Alkate, zinegotzi eta sektore desberdinetako ordezkarien aurrean; egitasmo berri bat lantzean dauden momentu honetan, Goierri eskualdeko esperientzia eta ibilbidea ezagutu nahi izan dute.
- 29an baita ere, Ordizia Rugby Elkartearekin bildu gara beraiek eskatuta; Goierriko kirol turismoaren lerro nagusienak azaldu dizkiegu.
- 29an ere Euskadiri buruz ekoizten ari diren bideo berrirako irudiak hartzen egon dira Goierriko hainbat lekutan.

## **ABENDUA**

- 1ean Euskadiko Ekoturismo Mahaia bildu da eta bilera honetan “España Verde” markako ekoturismoko proiektu berria eta honen promozioa aztertu dugu; Goierri eskualdeak parte hartuko du egitasmo honetan.
- 1ean baita ere, SEGITTUR-ek martxan jarri zuen turismoa eta lehen sektorea garatzeko lantaldearen bileran izan gara, aurtengoan Estatuko eskualde ezberdinetan garatutako proiektuen aurkezpenean.
- 1ean baita ere, datorren maiatzean ospatuko den Ameriketako blogeroen TBEX Kongresuaren antolaketan dabiltzan arduradunen bisita jaso dugu Goierriin; Kongresuari lotuta, Euskadin zehar egingo diren lau irteeretako bat Goierrikoa izango da, eta aurrez gure produktu turistiko desberdinak ezagutzera gerturatu dira eskualdera.
- 4ean Foru Aldundiko Turismo Sailak martxan jarri behar duen Eguberritako kanpainaren barruan egingo diren “scape street”ak antolatzen dituen enpresarekin bildu gara: Goierriin antolatu da hauetako bat.
- 5ean Gipuzkoako Turismo Mahaian parte hartu dugu eta ondorengo gai hauek jorratu ditugu: datorren urteko aurrekontuak eta ekintza plana, agenda, azoka eta promozioak.
- 11ean Foru Aldundian izan gara Turismo Sailaren eguberritako kanpainaren aurkezpenean.
- 12an Gura Marketing enpresarekin bildu gara etorkizuneko turismo bulegoetarako buruzko hausnarketa lantzeko helburuarekin.
- 14ean Basquefest azokari buruzko bilera batean parte hartu dugu: Bilbon, Aste Santuan ospatuko da azoka hau.
- Abenduan eskualdeko sagardotegiekin harremanetan jarri gara urtarrileko txotx irekieraren inguruan jarduteko.
- Abenduan zehar ere, Basquetour, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintari politikoekin elkartu gara, Goitur-ek datorren urterako duen egitasmoa aurkeztu eta beraien subentzioen berri eduki ahal izateko, elkarlanean egingo ditugun promozioak adostearekin batera.